

Bilbao Basket Fundazioak Etxerik Gabeko pertsonen eskubideen alde egiten du Bizitegi elkartearen kanpaina zabalduz

Datorren igandean, Bilbao Arena aretoak hartuko duen saskibalo partiduan “Partidu bat, helburu bat” ekintzaren barne, Bizitegiren alde egingo du Bilbao Basket Fundazioak Bolunta agentziarekin batera. Antza denez, Bilbao basket Fundazioak Bizkaiko elkarteen lana ezagutzera ematen du, oraingo honetan Dominion Bilbao Basket Galitziako Rio Natura Monbus Obradoiro saskibalo taldearen aurka jokatu du eguerdiko 12.30etan Bilbao Arena aretoan. Beraz, Bizitegi elkarteak #sintechoconderechos kanpainaren nondik norakoak Bilbao Basketeko zaleen artean zabaltzeko eta azaltzeko aukera izango du.

Gogora dezagun, duela astebete Bizitegik #sintechoconderechos sentsibilizazio kanpaina aurkeztu zuela Bilboko Metroan burutzenari den argazki erakusketa batekin eta lurzoruan inprimitutako publizitate aitzindarian oinarritutako kanpaina batekin. Errealitate honen inguruan gizarte-sentsibilizazioan murgiltzea da gure helburu, persona hauen egoeraren jakinaren gainean egotea, ikusditzagun eta veste ikuspegi batetik begira ditzagun, moralez koiritziak alde batera utziz, pertsonak errudundu gabe eta geure burua erruduntzat jo gabe. Gizartetik bazter dauden persona hauek gizartean txertatzeko tresnak behar dituzte. “Etxerik gabekoak”: aurpegia, arima zimurtu eta hautsiaren ispilua. Izaki ikusezina, axola gabekeria aurretik pasatzen ikusteko bazterra bilatzen duena. Txanpon batzuek, beharbada, eguna jasaten lagunduko diote. Kaleakahula harrapatzen du, eta bizia suntsitzen dio. Xedea da beti izan den baina, gaur egun, beharbada, gizarte-egoera orokorraren ondorioz, areagotuta ikusten den errealitate batagerian jartzea.

Kanpainak honako helburu hauek bilatzen ditu: etxerik gabeko pertsonenganako jarrera ezkorra aldatu nahi dugu, kaleko ekintza berritzaile baten bitartez gizartea mobilizatuz; ikus ezinbilakatu arte etxerik gabeko pertsonen irudiak altetzen dituzten aurre iritzi, estigma eta topikoekin amaitu; etxerik gabeko persona ikusgai egin; dituzten eskubideak aldarrikatzea honako Giza Eskubide haueko hartzeri begira: bizitza duinaizateko eskubidea, etxebizitza bati zateko eskubidea, adierazpen askatasun eskubidea, bizimodu libreki erabakitze eskubidea, besteak beste. Bizitegik elkarbizitzarako guneak sortu nahi ditu, zubiakeraiki eta etxerik gabeko pertsonekin hiritar solidarioago, zuzenago eta konprometituagoak lortu nahi ditu. Kanpainan parte hartu nahi duten lagunek bizitegi.org webgunea, sare sozialak edo ta sintechoconderechos.org abian ipini den webloga daukate eskura.

Bizitegi elkartetik eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu bai Bilbao Basket Fundazioari bai boluntari Etxerik Gabeko pertsonen aldeko kanpaina hau zabaltzen laguntzeagatik eta Giza Eskubideen alde egiteagatik.